

2019-2030 GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRAREN (GHHKPO 2019-30) FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA EGITEA.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusia hondakinen plan berria izapidetzen hasi da, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, foru arau bidez, onartuko dutena **-Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra 2019- 2030 (aurrerantzean GHHKPO 2019-2030)-**. Aurreikuspenen arabera, prozesu horrek 9 hilabete iraungo luke eta datorren urteko otsailean amaituko litzateke.

GHHKPO 2019-2030 planak bere lurralde esparruan hiri hondakinak kudeatzeko helburu estrategikoak ezarriko ditu, ondorengo aukera estrategikoen arabera:

- Prebentzioa maximizatzea, hau da, hiri hondakinen sorrera minimizatzea, hondakinen murrizketak eta berrerabilpenak toki, eskualde eta lurralde mailatan dituzten mugen barruan, Planak horietan baitu jarduteko eskumena.
- Ahalik eta gehien optimizatzea sortzaileengandik zuzenean jasotako hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena.
- Konpostajearen eta biometanizazioaren bitartez ahal den materia organiko gehien tratatzea.
- Ahalik eta gehien balioztatzea tratamendu plantetatik datozen errefusen hondakinak.
- Lehen mailako hondakinen zero isurketa. Ez botatzea aurretiaz tratamendu bat edo tratamendu batzuk izan ez dituzten hondakinak, tratamendu horiek ahalbidetzen baitute hondakinek dituzten baliabideak –materialak, energia– erabiltzea eta/edo duten arriskugarritasuna murriztea, azken tratamendua baino lehen.

GHHKPO 2019-2030 planaren izapidetze prozeduran kontuan izango da derrigorrez bete beharreko lege esparrua, eta bertan sartuko dira, aldi berean, **informazio, kontsulta eta partaidetza publikorako bideak:**

1.-Foru Arauaren aurreproiektua jendaurrean jartzeta.

6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 9.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde osoari dagozkion sektoreko plan bereziak foru arauen bidez erregulatuko dira.

2019-2030 GHHKPOren Foru Arauaren aurreproiektua prestatu ondoren, **Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak entzunaldia eta agiria jendaurrean ikusgai jartzeko bi hilabeteko aldia irekiko du**, eta, epe horren barruan, edozein pertsonak aurkeztu ahal izango ditu **alegazioak** (web orri honetan jakinaraziko da epea noiz irekiko den).

2.- Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Arruntaren prozeduraren alde zurreko kontsultak.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen indarrez eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, hondakinen planek ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta izan behar dute nahitaez, eta, beraz, ingurumen azterlan estrategiko batekin batera tramitatuko dira.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusia 2019-2030 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren alde zurreko kontsulten tramitea egiten hasi da. Ondorio horietarako, web orri honetan erabilgarri daude **planaren zirriborroa eta planaren hasierako dokumentu estrategikoa**, administrazio publikoek eta jendeak, orokorrean, azter ditzaten, eta egokitzen jotzen diren **ingurumen alorreko iradokizunak eta ekarpenak** aurkez ditzaten.

- 2019-2030 GHHKPOren zirriborroa eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa: <http://www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/-/gipuzkoako-hiri-hondakinak-kudeatzeko-2019-2030-plan-orokor-1>
- Argitaratze eguna: 2018ko ekainaren 1a.
- Ekarpenerak aurkezteko azken eguna: 2018ko uztailearen 8a.
- Bidali ekarpenak helbide honetara: <http://www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/parte-hartzea-eta-informazio-publikoa>

3.- Deliberaziozko partaidetzaren prozesua.

1/2010 Foru Arauak, uztailearen 8koak, herritarren partaidetzari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, foru arauen aurreproiektuak prestatzeko lanetan, horien xedea garrantzi bereziko gaiak direnean, hiri hondakinen kudeaketa gaia den bezala, herritarren partaidetzaren prozesua egingo da. Horregatik eta planak, hasieratik, **partaidetzazko deliberazio prozesu** bat jasotzen du. Prozesu horretan hainbat eragile sozial eta instituzionalek hartuko dute parte, plana prestatzeko eragile horien ekarpenekin dokumentua aberastearren eta horrela gobernu ekintzetan gardentasuna areagotzeko. Horretarako, **protokolo zirriborro** bat prestatu da, aipatutako prozesuaren oinarriak ezarriko dituen, eta **Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak onartu behar duena.**

Hori dela eta, **Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak partaidetzazko deliberazio prozesuaren protokolo zirriborroari buruzko kontsultaren epea irekiko du, 2018ko ekainaren 18tik uztailearen 13ra arte.**

Ekarpenerak bildu, behin-betiko protokolo egin eta onartu ondoren, **2018ko uztailearen amaieratik abuztuaren amaierara arte izena emateko epea irekiko da.** Honetan, herritarren elkarteek eta pertsona indibidualek **aldez aurretik izena eman behar dute partaidetzazko deliberazio prozesuan** parte hartu ahal izateko.

Inskripzioak egin ondoren eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak partaidetzazko deliberazio prozesua burutzeko epea erabaki eta gero, prozesu hau hurrengo hilabetetan aurrera eramango da, 2018ko urte amaite baino lehen.

- Partaidetzako deliberazio prozesuaren protokoloaren zirriborrea: [https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/3687614/PARTAIDETZAZKOD ELIBERAZIOPROZESUKOPROKOLOA20180618_eu.pdf/1500ad3c-a47f-31aa-b9ca-04bc1bc14d0b](https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/3687614/PARTAIDETZAZKOD%20ELIBERAZIOPROZESUKOPROKOLOA20180618_eu.pdf/1500ad3c-a47f-31aa-b9ca-04bc1bc14d0b)
- Protokoloaren zirriborroaren kontsultaren epea: 2018ko ekainaren 18tik uztailearen 13ra arte.
- Iradokizunak egiteko inprimakia egongo den Web helbidea: <https://www9.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/WATGipuzkoatariaWEB/inicio.do?idioma=E&app=1007>